

MUSIKA. Ekimenaren antolatzaile Euskal Kultur Erakundearen xedea Iparraldean fonoteka iraunkorra sortzea da

Bihar zabalduko dute Koldo Mitxelena 'Kantuketan' erakusketa

Euskal kantagintzaren historia ageri da euskarri berrietan, musika eta irudiek lagundurik

Ainhoa Ojartzabal | DONOSTIA

Entzuteko, ikusteko eta sentitzeko erakusketa aurkeztu zuten atzo Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean; *Kantuketan* ikus-entzunezkoa —bihar arratsaldeko 19:30ean zabalduko dute—. Bertan, aspaldiko zein gaur egungo musika entzun daiteke, eta hainbat argazki nahiz bideo irudien bitartez, euskaldunok noiz eta nola kantatzen dugun ikus daiteke. Soinu eta irudiekin heltzen zaigu kantua, oroimenetik igaro ondoren, bihotzera. «Memoria baten bizia erakustea» baita, erakusketaren antolatzaile Euskal Kultur Erakundearen zuzendari Pantxo Etxegoien esanetan, ekimenaren xedea. Halaber, noizbait Iparraldean euskal kantagintzaren fonoteka sortzeko asmoa dutela gaineratu zuen, «anitz soinu artxibo eta idazki badira-eta hemen».

Duela urte eta erdi ekin zion Euskal Kultur Erakundeak *Kantuketan* proiektuari, eta erakusketarekin batera, ekitaldiak, hitzaldiak eta bestelako ekintzak antolatzen dituzte. Honezkerok 12.000 lagunek ikusi dute bihartik martxoaren bira arte Donostian izango den erakusketa. Tarte horretan, otsaileko ostegun guztietan, kontzertuak izango dira Koldo Mitxelena.

Donostiako erakusketa Hegoaldean paratzen duten lehenengoetakoa da. Euskal Kultur Erakundearen aburuz, oso garrantzitsua da Koldo Mitxelena egotea: «Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman sakontzen laguntzen baitu horrek». Donostiatik berriro ere Iparraldera, gero Bordelera, handik Okzitaniako Tolosara, eta ondoren, Bilbora eramango dute *Kantuketan*. Quebecen eta Ameriketako beste herrialde batzuetan ere izango direla aurreratu zuen Etxegoinek.

Memoriatik sorkuntzara

Ondarea gordetzea da euskara eta euskal kulturaren alde duela hamaika urte Uztaritzen sortu zen elkartearen funtzioetako bat. Horren baitan, euskal kantugintzan eginiko lana erakustearekin belaunaldi berriei kantua eta musikaren plazera ematen ahalegintzen dira.

«*Kantuketan*-en programa sorkuntzaren laguntza ere



BOB EDME

Erakusketa Baionan jarri zuten lehenengoz iazko otsailean.

EMANALDIK

Ostegunero hitzordua kantuarekin

Otsaileko ostegun iluntzetan musika emanaldiak, errezitalak nahiz hitzaldiak izango dira Koldo Mitxelena kulturunean, *Kantuketan* erakusketaren barnean. Lehena otsailaren 7an izango da: Xalbadorren bertso errezitala eskainiko du Xabier Amuriza bertsolariak, Kattalin Totorika, Pantxo Etxegoien, Peio Ospital eta Mikel Mendizabal lagun hartuta.

Hurrengo astean, Ipar Euskal Herriko ahots gazteak entzuteko parada izango da. Beñat

Axiarerekin ikasten duten Argitxu Esain, Gaëlle Larroude, Amaia Riousspeyrous eta Aines Axia-ri kantari gazteak eskainiko dute kantu emanaldia.

Otsailaren 21ean Oiasso Novis musika taldearen kontzertua izango da Koldo Mitxelena. Ramon Lazkanoren obrak eskainiko dituzte —hain zuzen, musikari donostiarra da erakusketaren babesleetakoa bat—.

Azken emanaldia otsailaren 28an izango da. Juan Mari Lekuonak Ojartzungo kantutegiaz hitz egingo du, bertako memoriatik abiatuz. Julian eta Andoni bere bi anaiek batera urteetan eginiko kantu bilteta emankorrari buruz ariko da olerkari eta Euskaltzain esanguratsua.

badu», zioen Pantxo Etxegoienek, euskal artistak oroimenez sorkuntzara eramatea bilatzen baitute; «finean, eurek egiten dute kantua eta musika». Sorkuntza garaikidea egiten duten taldeei laguntzea omen da euren lana, hobeki edo profesionaltasunarekin lan egin dezaten ahalbidetzea.

Bertakoa sortzeko kanpokoa ezagutzea baliagarria dela uste dute, eta horregatik antolatu dituzte beste herrialdeetako musikak eta kantuak ezagutzeko trukaketa kulturalak. Quebec, Txetxenia, Bulgaria, Uzbekistan... Herrialde askotako musi-

kariekin jarri dira harremanetan.

Mezako kantuetatik Itoizeraino

Helburu horiekin eraiki dute Quebecoko Zibilizazioaren Museoaren eredu aintzat hartuta *Kantuketan* erakusketa, non euskal kantua berritasun teknologikoak baliaturik aurkezten duten. Soinuz eta irudiz baliaturik euskal kantuaren ibilbidean barneratzen dira, euskal kantagintza idatzirik azaltzea zaila dela uste baitu Etxegoienek. «DVEi esker lau hizkuntzatan eman ditugu azalpenak».

Euskal kantagintzaren hain-

bat alor jorratzen dituzte 200 metro koadrotan, hiru ataletan banaturik: Lehena, euskal kantuaren historiari buruzkoa da, eta kantu epikoak, emigrazioari buruzkoak eta horrelakoak sartu dituzte —esaterako, 1940. urteko grabazioak daude—; bigarrenak kantuak abesteko uneei buruz dihardu, hots, jaietan, mezetan edota Maskaradetan abesten direnak hartzen dituzte hizpide atal honetan; azkeneko atalean, berriz, 60ko hamarkadaz geroztik euskal kantagintzak hartu duen norabidea ageri da. Mikel Laboa, Itoitz... gertuko historia, finean.

Peggy Lee jazz kantari eta musikaria hil da, 81 urterekin, bihotzekoak jota

Agentziak | LOS ANGELES

Bihotzekoak jota hil zen atzo Kalifornian (AEB) Peggy Lee jazz musikari eta kantari ospetsua. 81 urte zituen jazzaren *ahots goxoa* gisa ezagutzen zen musikariak. *Fever* eta *I'm A Woman* kantuekin egin zen ospetsu.

Ez zen ahots indartsuaren jabe, baina goxotasun handiarekin abesten zuen. Sentsualitatea zen bere ahotsaren ezaugarri nabarmengarriena. Horregatik, Bessie Smith, Billie Holiday, Ella Fitzgerald eta Mildred Baileyn maila berean kokatu izan dute.

Gutxi gorabehera, 60 disko kaleratu zituen Peggy Leek, eta 600 kantuetatik gora abestu. *Why Don't You Do Right?*, *I'm A Woman*, *Lover*, *I'm Gonna Go Fishin*, *Big Spender* eta *Is That All There Is* dira bere diskorik garrantzitsuenak. Hain zuzen, azken lan horrekin irabazi zuen 1969an Grammy saria. 1989an, berriz, Grammyetarako izendapena jaso zuen, *Peggy Sings the Blues* lanagatik. Hainbat sari eskuratu zituen bere ibilbide oparoagatik, eta Oscar sarietarako postulazio bat ere jaso zuen.

Bere konposizio lanen artean Disneyrako egin zituen kantuak dira ezagunenak. Horretaz gainera, ezagunak dira Duke Ellington eta Johnny Mercerrekin batera eginiko lanak. Halaber, Benny Goodman taldearekin grabatu izan zuen.

Hautzaro gogorra

Broadwayko ikuskizun batean, *Peg* delakoan, parte-hartze handia izan zuen Leek. Ikuskizun autobiografikoa izaki, bertan azaldu zuen nola hautzaro gogorra bizi izan zuen. Bereko izena Norman Deloris Engstrom zuen kantariari lau urte zituenean hil zitzaion ama, eta aitak etxetik alde egin zuen. Ondorioz, amaorde batek hazi zuen, zeinek tratu txarrak egin zizkion.